


Altza



Goian, garai bateko Buenebista

Historiari begira

Beatriz Herrerasak "Altza, historia eta ondarea" liburua kaleratu berri du. Herrerasak, bestekak beste, Altzak identitate indartsua duela dio.

Sara Soria 943-357037

Altzako Historia Mintegiak, urtero, historia ikertzeko beka deialdia egiten du, hainbat erakunderekin laguntzarekin. Oraingoan, Beatriz Herreras Deustuko Unibertsitatean irakaslea beka honetaz baliatu da, Altzako ondarea ikertzeko eta bere lana "Altza, historia eta ondarea"- argitaratzeko.

Liburuaren egileak Altzak identitate kolektibo indartsua duela adierazi du. "Herriaren kulturak, historiak eta ondareak biziki motibatutako biztanleria aurkitu dut Altzan",

adierazi du Herrerasak. Liburuak ondarearen inguruko ikuspegi globala ematen du. "Argi dago Altzaren ondarea aberatsa, askotarikoa eta interesgarria dela; hala ere, ezkutuan dago, hirigintza konplexu eta kaotikoaren atzean" azaldu du irakasleak.

Altzaren ondare aberatsaren bidez, aro historiko guztiak antzeman daitezke. "Batasun hobezina dago historia eta ondarearen artean: baserriak, etxe nobleak, solairu askotako etxeak, familia bakoitzaren etxebizitzak, lantegiak, eta trenbidea. Haien bidez, Altzako historia



Tomasene Baserria

ezagutu dezakegu", dio Beatriz Herrerasak. Irakaslearen ustez, galdutako ondareak ere ingurunea ulertzen laguntzen du. Bere lanean, Herrerasak ondarea zergatik galdu den azaldu du eta ildo honetatik, Altzako kolektibitatearentzat kaltegarriak diren galerak saihestea nahi luke. Baserrien artean, Tomasene nabarmendu du, eta ondare industrialari dagokionez, Llusa y Cía lantegia, arkitektura modernistaren adierazgarria delako.

Auditx Akular

Altza hobetu behar dela aitortu du Herrerasak, baina

Herrerasen ustez, Altzak identitate kolektibo indartsua du

eraikin hauek kontuan hartu behar direla gaineratu du. "Horrekin ez dut esan nahi denak gorde behar ditugunik, bai, ordea, galtzen ari denaren balioa ezagutu behar dela".

Liburuaren egilearen ustez, bestalde, gaur egun aspaldiko arazoak eta ideiak errepikatzen ari dira. Izan ere, mende hasieran Maria Cristinaren "etxe merkeak", Altzako pasealekuan, etxebizitzaren arazoa konpontzeko egin ziren. Helburu bera zuten Ramon Cortazarren Intxaurrendoko "faministerioek". Gaur egun, Auditx Akularreko proiektua dela eta, Herrerasak arazoak bere horretan dirauela dio. "Mende hasieran Altza etxebizitzaren salbatzaile gorenaren izen zitekeela ikusi zen. Orain, ehun urte beranduago, berdin jarraitzen dugula dirudi, arian inguru honetan itxaropen gehiegi jartzen".



Gaur egungo garraio azkarrak ez zegoen garai bateko Altzan.